**INGURUMEN ETA LURRALDE ANTOLAMENDU SAILA**

**4649**

EBAZPENA, 2008ko martxoaren 14koa, Ingurumen sailburuordearena, Bilboko Udalak sustatu duen Bilboko Itsasadarraren Eremua Antolatzeko Plan Bereziak Ingurumenean duen Eraginaren Ebaluazio Bateratuaren erreferentziazko agiria egiteko dena.

Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumena babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorraren 41. artikuluaren arabera, I. eranskineko A atalean jasotzen diren planek Ingurumenean duten Eraginaren Ebaluazio Bateratuaren prozedurari jarraitu behar diote; horien artean dago Bilboko Udalak sustatu duen Bilboko Itsasadarraren Eremua Antolatzeko Plan Berezia. Helburua, besteak beste, plan horiek plangintza-prozesuaren hasierako faseetan sartzea da, ingurumenean izan ditzaketen ondorioak aztertu eta balioesteko, zenbait jarduerak eragindako ondorio metatzaileak eta sinergikoak kontuan izanik, eta horrenbestez, aukerarik egokiena egiteko.

Era berean, aldaketa puntual hori zenbait plan eta programak ingurumenean dituzten ondorioak ebaluatzeko apirilaren 28ko 9/2006 Legearen aplikazio eremuan dago. Aipatutako arauaren 9. artikuluan ezarri zenez, ingurumenaren iraunkortasunari buruzko txostenaren xehetasun maila eta zehaztasun gradua ingurumeneko organoak ezarriko ditu, ukitutako administrazio publikoak eta publiko interesduna identifikatu eta haiei galdetu eta gero, erreferentziako agiri bat emanez. Agiri horretan, gainera, kasu bakoitzean aplikatu beharreko ingurumen irizpide estrategikoak, ingurumen helburuen adierazleak eta iraunkortasun printzipioak adieraziko dira.

Bilboko Udalak, Bilboko Itsasadarraren Eremua Antolatzeko Plan Bereziak ingurumenean duen eraginaren ebaluazio bateratua ebaluatzeko prozedura hasteko eskatu zuen 2008ko urtarrilaren 14an.

Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailaren egitura organikoa ezartzen duen urriaren 25eko 340/2005 Dekretuaren arabera, Ingurumen Sailburuordetzari dagokio Plan eta Programek Ingurumenean izango duten eraginari buruzko txostenak egiteko eskumena.

Espedienteko agiriak aztertu ondoren, eta 9/2006 Legearen, plan eta programa jakinak ingurumenean duten eragina ebaluatzeari buruzkoaren 9. artikuluan aurreikusitako izapideak betetzeko, Ingurumen Sailburuordetzak hau

**DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE Y ORDENACIÓN DEL TERRITORIO**

**4649**

RESOLUCIÓN de 14 de marzo de 2008, del Viceconsejero de Medio Ambiente, por la que se formula el documento de referencia para la Evaluación Conjunta de Impacto Ambiental del Plan Especial de Ordenación del Ámbito de la Ría, promovido por el Ayuntamiento de Bilbao.

De conformidad con el artículo 41 de la Ley 3/1998, de 27 de febrero, General de Protección de Medio Ambiente del País Vasco, los planes contemplados en el apartado A) del anexo I, entre los que se encuentra el Plan Especial de Ordenación del Ámbito de la Ría, promovido por el Ayuntamiento de Bilbao, quedan sometidos al procedimiento de Evaluación Conjunta de Impacto Ambiental con el objetivo, entre otros, de introducir en las primeras fases del proceso de planificación, y en orden a la elección de las alternativas más adecuadas, el análisis y valoración relativo a las repercusiones que sobre el medio ambiente se deriven de la aplicación del plan, teniendo en cuenta los efectos acumulativos y sinérgicos derivados de las diversas actividades.

Igualmente, la modificación citada se encuentra en el ámbito de aplicación de la Ley 9/2006, de 28 de abril, sobre evaluación de los efectos de determinados planes y programas en el medio ambiente, estableciéndose en el artículo 9 de la citada norma que el alcance, nivel de detalle y el grado de especificidad del informe de sostenibilidad ambiental se determinará por el órgano ambiental, tras identificar y consultar a las Administraciones públicas afectadas y al público interesado, mediante la emisión de un documento de referencia que incluirá además los criterios ambientales estratégicos e indicadores de los objetivos ambientales y principios de sostenibilidad aplicables en cada caso.

El Ayuntamiento de Bilbao, con fecha 14 de enero de 2008, ha solicitado el inicio del procedimiento de evaluación de impacto ambiental en relación con el Plan Especial de Ordenación del Ámbito de la Ría.

De conformidad con el Decreto 340/2005, de 25 de octubre, por el que se establece la estructura orgánica del Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio, corresponde a la Viceconsejería de Medio Ambiente la competencia para la emisión de los informes de impacto ambiental en relación con los planes y programas.

Una vez examinada la documentación del expediente, y en cumplimiento del trámite previsto en el artículo 9 de la Ley 9/2006, sobre evaluación de los efectos de determinados planes y programas en el medio ambiente, la Viceconsejería de Medio Ambiente

EBATZI DU:

1.– Bilboko Udalak sustatu duen «Itsasadarraren Eremua Antolatzeko Plan Bereziaren» gaineko erreferentziazko agiria egitea, ingurumen ondorioetarako soilik.

2.– Erreferentziazko agiria honela idaztea:

2.1.– Aurrekariak.

Itsasadarraren Eremua Antolatzeko Plan Bereziak komunikazio-erabilerarako, ibai-egoera moduan kalifikatuta dagoenaren, hau da, itsasadarraren ibilguaren Hidrografia-Sistema Orokorraren hirigintzako antolamendua eta araudia garatzen du. Beraren bidez arautzen dira Bilboko Hiri Antolamenduko Plan Nagusiaren bidez arautzen ez diren erabilera bereziak. Plan bereziak, gainera, Hiri Antolamenduko Plan Nagusiaren eremuko gainerako sailak garatu eta zehazten ditu, bi aldez osatuta dagoena, itsasadarraren ibilguaren bi aldeak, hain zuzen; Hiri Antolamenduko Plan Bereziak errepide-sarerako edota aire libreko espazio edo berdegune bezala erabiltzeko sailkatzen dituenak.

Erabilera bereziak dira Plan Bereziak ezartzen dituenak Hiri Antolamenduko Plan Nagusian ezarrita dauden erabileren sailkapena garatu eta osatzeko; horrela, itsasadarraren ibilgua erabili dezaketen jarduerak zeintzuk izan daitezkeen zehazten da (plan bereziaren araudiko 7. artikulua).

Definitutako erabilera bereziak dira, esaterako, bidaiarientzako ibaietako geltokiak, nautikako kirol-eskolak, ur-gaineko hotelak, jatetxeak eta dantzalekuak, ur-gaineko aurkezpen eta erakusketa-lekuak, hiriko hondartzak eta abar.

Hiri Antolamendu Plan Nagusiak erabilera horietarako baimentzen dituen lurzoruetan bakarrik kokatuko dira erabilera bereziak, eta horretarako ezarritako baldintzetan, gainera. Arau honetatik salbuetsita dago hidrografiako sistema orokorraren esparrua, komunikaziorako erabilera, ibai-egoera. Esparru horretarako kokapena eta baldintzak plan berezian zehazten dira.

2.2.– Egindako kontsultak.

Ingurumen Sailburuordetza honek kontsulta egin zien ondorengo erakundeei:

– Ingurumen Ministerioko Itsasertzaren Zuzendaritza Nagusiari

– Iparraldeko Ur-Konfederazioari.

– Eusko Jaurlaritzaren Landa eta Kostaldearen Garapenerako Zuzendaritzari.

– Eusko Jaurlaritzaren Kultura Ondarearen Zuzendaritzari.

– Eusko Jaurlaritzaren Larrialdietarako Zuzendaritzari.

– Eusko Jaurlaritzaren Uren Zuzendaritzari.

RESUELVE:

1.– Formular, únicamente a efectos ambientales, el documento de referencia del «Plan Especial de Ordenación del Ámbito de la Ría» promovido por el Ayuntamiento de Bilbao.

2.– Establecer dicho documento de referencia en los siguientes términos:

2.1.– Antecedentes.

El Plan Especial de Ordenación del Ámbito de la Ría desarrolla la ordenación y regulación urbanística del Sistema General Hidrográfico que está calificado con el uso de Comunicaciones, situación Fluvial, es decir, el cauce de la ría. En particular se regulan ahí los usos especiales que no están regulados por el Plan General de Ordenación Urbana de Bilbao. El plan especial, asimismo, desarrolla y concreta el PGOU en el resto de su ámbito, que está constituido por dos bandas, una a cada lado del cauce, y calificado por el PGOU con el uso de Red Viaria o el de Espacios Libres y Zonas Verdes.

Se denominan usos especiales aquellos que el plan especial establece para desarrollar y completar la clasificación de los usos del PGOU con objeto de precisar las actividades que pueden autorizarse en relación con la utilización del cauce de la ría (artículo 7 de la normativa del plan especial).

Los usos especiales que se definen son, por ejemplo, estaciones fluviales de pasajeros, escuelas de náutica deportiva, hoteles, restaurantes y discotecas flotantes, instalaciones flotantes para presentaciones y exhibiciones, playas urbanas, etc.

Los usos especiales sólo podrán localizarse en los suelos en los que el PGOU autorice el tipo de uso correspondiente, y en las condiciones que el plan general indica para aquellos. Se exceptúa de esta norma el ámbito incluido en el sistema general hidrográfico, uso comunicaciones, situación fluvial. En este ámbito, la ubicación y condiciones se definen en el plan especial.

2.2.– Consultas realizadas.

Esta Viceconsejería de Medio Ambiente consultó a las siguientes Administraciones públicas afectadas:

– Dirección General de Costas, del Ministerio de Medio Ambiente.

– Confederación Hidrográfica Norte.

– Dirección de Desarrollo Rural y Litoral del Gobierno Vasco.

– Dirección de Patrimonio Cultural del Gobierno Vasco.

– Dirección de Emergencias del Gobierno Vasco.

– Dirección de Aguas del Gobierno Vasco.

– Eusko Jaurlaritzaren Biodibertsitaterako eta Ingurumen Partaidetzarako Zuzendaritzari.

– Eusko Jaurlaritzaren Ingurumenaren Kalitatearen Zuzendaritzari.

– Eusko Jaurlaritzaren Lurraldearen Antolamendurako Zuzendaritzari.

– Eusko Jaurlaritzaren Osasun Publikoko Zuzendaritzari.

– Bizkaiko Foru Aldundiko Ingurumenaren Zuzendaritza Nagusiari.

– Bizkaiko Foru Aldundiko Kulturako Zuzendaritza Nagusiari.

– Bizkaiko Foru Aldundiko Mendien eta Naturguneen Zuzendaritza Nagusiari.

– Bizkaiko Foru Aldundiko Hirigintzako Zuzendaritza Nagusiari.

– Arrigorriagako Udalari.

– Barakaldoko Udalari.

– Basauriko Udalari.

– Etxebarriko Udalari.

– Erandioko Udalari.

Kontsultarako arauz ezarritako epean honako erantzunak jaso genituen:

– Eusko Jaurlaritzako Landa eta Kostaldearen Garapenerako Zuzendaritzarena: proiektuak ez dauka eraginik nekazaritzan eta beraz, ez dugu txostenik egingo.

– Eusko Jaurlaritzaren Kultura Ondarearen Zuzendaritzarena: kontuan izan beharko dira planaren eremuan dauden ondarezko elementuak eta arkeologia-aztarnategiak eta horiek babesteko araudia. Era berean, jarraipen arkeologikoa egiteko proiektu bat izango beharko dute.

– Eusko Jaurlaritzaren Ingurumenaren Kalitatearen Zuzendaritzarena: lurzorua kutsa dezakeen jardueraren bat egon den edo dagoen lursail baten sailkapena aldatu nahi bada lurzoruaren kalitatearen adierazpenaren prozedura hasi behar da lehenik; baita lurzorua kutsa dezakeen jardueraren bat egon den lursail batean lurmugimenduak egin nahi badira ere, nahiz eta gaur egun jardunean ez egon.

– Bizkaiko Foru Aldundiko Hirigintzako Zuzendaritza Nagusiarena: plan berezian kontuan izango dira Bilbo Hiriko Lurraldearen Zatiko Planean ezarritako zehaztapenak eta gomendioak, batez ere itsasadarraren ingururako proposatu diren jarduera estrategikoetan eta ekintza egituratzaileetan.

Era berean, interesdunak identifikatu eta eurei kontsulta egiteko asmoz, 2008ko urtarrilaren 27an Euskal Autonomia Erkidegoan zabalkunde handienetariko bi egunkaritan argitaratu zen prozedura hasiko zelako iragarkia, eta agiri guztiak jendaurrean jarri ziren Ingu-

– Dirección de Biodiversidad y Participación Ambiental del Gobierno Vasco.

– Dirección de Calidad Ambiental del Gobierno Vasco.

– Dirección de Ordenación del Territorio del Gobierno Vasco.

– Dirección de Salud Pública del Gobierno Vasco.

– Dirección General de Medio Ambiente de la Diputación Foral de Bizkaia.

– Dirección General de Cultura de la Diputación Foral de Bizkaia.

– Dirección General de Montes y Espacios Naturales de la Diputación Foral de Bizkaia.

– Dirección General de Urbanismo de la Diputación Foral de Bizkaia.

– Ayuntamiento de Arrigorriaga.

– Ayuntamiento de Baracaldo.

– Ayuntamiento de Basauri.

– Ayuntamiento de Etxebarri.

– Ayuntamiento de Erandio.

Finalizado el plazo reglamentario, se han recibido las respuestas que se resumen a continuación:

– Dirección de Desarrollo Rural y Litoral del Gobierno Vasco: el proyecto no tiene afección agraria y en consecuencia no emitirá informe al respecto.

– Dirección de Patrimonio Cultural del Gobierno Vasco: se deberán tener en consideración los elementos patrimoniales y yacimientos arqueológicos comprendidos en el ámbito del plan, así como su normativa protectora. Asimismo, se deberá contar con un proyecto de seguimiento arqueológico.

– Dirección de Calidad Ambiental del Gobierno Vasco: debe iniciarse el procedimiento de declaración de calidad del suelo en el supuesto de un cambio de calificación del suelo que soporte o haya soportado una actividad potencialmente contaminante, y también en el supuesto de ejecución de proyectos de movimiento de tierras en un emplazamiento que hubiera soportado una instalación o una actividad potencialmente contaminante del suelo y que en la actualidad se encuentre inactivo.

– Dirección General de Urbanismo de la Diputación Foral de Bizkaia: el plan especial debe considerar las determinaciones y recomendaciones que dispone el Plan Territorial Parcial del Bilbao Metropolitano, en especial las operaciones estratégicas y acciones estructurantes que propone para el entorno de la ría.

Asimismo, a los efectos de identificación y consulta al público interesado, el 27 de enero de 2008 se publicó en dos periódicos de amplia difusión en la Comunidad Autónoma del País Vasco un anuncio informando sobre el inicio del procedimiento, y se puso la docu-

rumen eta Lurralde Antolamendu Saileko Ingurumen Sailburuordetzan eta Saileko web orrian. Alegazioak aurkezteko epea 2008ko otsailaren 29an amaitu zen. Epe horretan alegazio hauek aurkeztu zituzten:

– Hondakinak Deskontaminatu eta Ezabatzeko Sozietate Anonimoa: plan berezian proposatzen diren erabilerak ez dira bateragarriak Hiri Antolamenduko Plan Nagusian Zorrotza alderako aurreikusitako erabilerekin.

– Euroberdeak alderdi politikoa: lehenengo, ez dira bete Lurzorua eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 9. artikuluan ezarritako aurreikuspenak, hirigintzako proiektuek behar besteko publizitaterik ez dutelako; bigarren, Botikazar Erribera-Elorrieta pasealekua berreskuratzeko eskatzen du; hirugarren, garrantzi handiko proiektuei dagozkien lanak eta horiek ingurumenean duten eragina plan berezian sartu daitezela eskatzen du (tunel barruko by-passa, Zorrotzaurre, Bolueta...); eta laugarren, plan berezia eta ingurumenaren gaineko eraginaren azterlana berraztertzeko eskatzen du, egingo diren jarduerak eta ekintzak nahiz ingurumenaren gaineko eragina zehatz-mehatz definitzeko.

– 137 partikularrek aurkeztu dituzte alegazioak; oro har, Euroberdeak alderdiak egin dituen alegazioekin bat datozenak.

2.3.– Ingurumeneko helburu estrategikoak.

Arau Subsidiarioen aldaketa puntualean irizpide eta helburu hauek txertatuko dira: 2002-2020 aldirako Garapen iraunkorrerako Euskal Ingurumen-Estrategian, 2007-2010 aldirako Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumeneko Esparru-Programan eta Lurzorua eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legean jasota dauden ingurumen mailako irizpide estrategikoak eta helburuak; bereziki honakoak:

– Lurzorua zentzuz eta intentsiboki erabiltzea (2/2006 Legearen 3. artikulua).

– Kapital naturala indartu eta biodibertsitatea babestea ( IEPren II. Lehentasuna).

– Berdeguneak sustatu eta gehitzea, aireztatze naturala eta biodibertsitatea sustatuz.

– Lurzoruaren kutsadura saihestu eta zuzentzea.

– Mugikortasun gutxiago sortzea eta banaketa modala garraio motor-gabea (oinez, bizikletan) eta garraio publikora (trena, tranbia, autobusa) bideratzea.

– Ur garbia bermatzea.

– Zarata handia jasan behar duen biztanleria gutxitzea.

– Hondakinen kudeaketa bermatzea, ekoizpena gutxitu, gehiago berrerabili eta birziklatuz.

mentación a disposición del público en la sede de la Viceconsejería de Medio Ambiente y en la página web del Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio. El plazo para recibir alegaciones terminó el 29 de febrero de 2008. Se han recibido las siguientes alegaciones:

– Sociedad Anónima de Descontaminación y Eliminación de Residuos: los usos propuestos por el plan especial son incompatibles con los previstos por el Plan General de Ordenación Urbana en la zona del puntal de Zorroza.

– Partido político Euroberdeak: primera, se han incumplido las previsiones del artículo 9 de la Ley 2/2006, de Suelo y Urbanismo, por falta de publicidad suficiente de los proyectos urbanísticos; segunda, reclama la recuperación del paseo de ribera Botica Vieja-Elorrieta; tercera, reclama que se introduzcan en el plan especial referencias a las obras e impacto ambiental de proyectos de gran envergadura (by-pass en túnel, Zorrozaurre, Bolueta…); y cuarta, reclama que el plan especial y el estudio de impacto ambiental sean revisados, para definir con precisión las realizaciones y actividades, así como su impacto ambiental.

– 137 particulares han presentado alegaciones que, en el fondo, vienen a coincidir con las que se acaban de exponer para Euroberdeak.

2.3.– Criterios ambientales estratégicos.

En la modificación puntual de normas subsidiarias se integrarán los criterios estratégicos y objetivos ambientales contenidos en la Estrategia Ambiental Vasca de Desarrollo Sostenible 2002-2020, en el Programa Marco Ambiental de la Comunidad Autónoma del País Vasco 2007-2010 (PMA) y en la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo, especialmente los siguientes:

– Utilizar racional e intensivamente el suelo (artículo 3 de la Ley 2/2006).

– Reforzar el capital natural y proteger la biodiversidad (Prioridad II del PMA).

– Promocionar y aumentar las zonas verdes, favoreciendo la adecuada ventilación natural y la biodiversidad.

– Prevenir y corregir la contaminación del suelo.

– Reducir la generación de movilidad, y reconducir el reparto modal hacia el transporte no motorizado (a pie y en bicicleta) y el transporte público (tren, tranvía y autobús).

– Garantizar un agua limpia.

– Disminuir la población expuesta a niveles altos de ruido.

– Garantizar una gestión de residuos basada en la minimización de su producción y el fomento de la reutilización y el reciclaje.

– Aire garbia bermatzea.

– Energia aurreztu, eta energia berriztagarriak eta kogenerazioaren eraginkortasuna eta erabilera indartuz.

– Hirigintzako sistemetan natur baliabideak aurreztu daitezen sustatzea: ura, materialak eta lurzorua.

2.4.– Ingurumen helburuen adierazleak eta iraunkortasunerako printzipioak.

Ingurumen arloko helburuen adierazleak 2007-2010 aldirako Ingurumeneko Esparru-programako Aginte Taula Integralean (ATI) adierazitakoak izango dira, gutxienez, planak ingurumenean eragin esanguratsua izan baitezake.

Gauzak bi aldiz ez egitearren, adierazle horiek ikuskatzeko (ingurumenari buruzko informazioa bildu, prozesatu eta ebaluatzeko) erakunde arduradunak 2007-2010 aldirako Ingurumeneko Esparru-programako Aginte Taula Integralean (ATI) adierazitakoak izango dira. Erakunde arduradunak Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak herritarrei urtero aurkezten dien 2007-2010 Ingurumeneko Esparru-programako konpromisoen jarraipenari buruzko txostenean sartuko du ikuskaritza hori.

Horrela bada, adierazle horiek gainbegiratzeko ardura Udalaren gain ez dagoenean, adierazleok Ingurumenaren eragina ebaluatzeko Azterlanean jaso beharko dira, Aldaketa gainbegiratzeko Programaren barruan, hain zuzen, eta berariaz aipatuko da zein izango den gainbegiraketa horren arduraduna eta zein esparrutan egingo den (Esaterako, 2007-2010 IEPren jarraipenaren barruan) eta zein maiztasunez egingo den.

Edonola ere, beste adierazle batzuk jarri beharko dira aztertzen ari garen aldaketaren faseari dagozkion ingurumeneko helburu zehatzak neurtzeko, ingurumenean eragin nabarmena izan dezaketela uste denean.

2.5.– Iraunkortasun-txostenaren zabalera, xehetasun eta zehaztasun-maila.

Zenbait plan eta programak ingurumenean duten eraginaren ebaluazioari buruzko apirilaren 28ko 9/2006 Legean aipatzen den ingurumen-iraunkortasunari buruzko txostena, ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio bateratuari buruzko uztailaren 22ko 183/2003 Dekretuan adierazitako ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio bateratuaren azterlanean sartuta dagoela ulertu behar da. Beraz, «Bilboko Itsasadarraren eremua Antolatzeko Plan Bereziak» ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazioa behar du, uztailaren 22ko 183/2003 Dekretuaren eranskinean eta apirilaren 28ko 9/2006 Legearen I. eranskinean ezarritako gutxieneko edukiak eta egituraren arabera eginda.

Aurreko guztiarekin bat, ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluaziorako azterlanean garatuko diren atalak ondorengo metodologi eskemari erantzungo diote:

– Garantizar un aire limpio.

– Fomento del ahorro energético, la eficiencia y el uso de energías renovables y la cogeneración.

– Fomento del ahorro de recursos naturales en los sistemas urbanos: agua, materiales y suelo.

2.4.– Indicadores de los objetivos ambientales y principios de sostenibilidad.

Los indicadores de estos objetivos ambientales, en tanto que generadores de probables efectos significativos del Plan en el medio ambiente, serán, al menos, los señalados en el Cuadro de Mando Integral (CMI) del PMA 2007-2010.

Con objeto de evitar duplicidades, la autoridad responsable de las tareas de supervisión (recopilación, procesamiento y evaluación de la información medioambiental) de estos indicadores será la que se señala en el CMI del PMA 2007-2010. La autoridad responsable integrará esta supervisión en el informe de seguimiento de los compromisos del Programa Marco Ambiental 2007-2010, que anualmente el Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio del Gobierno Vasco presenta a la sociedad.

Por tanto, aún cuando el Ayuntamiento no sea el responsable de la supervisión de estos indicadores, el estudio de Evaluación Conjunta de Impacto Ambiental deberá recogerlos dentro del Programa de supervisión de la Modificación, e indicar, expresamente, qué autoridad será responsable de la supervisión, en qué marco se realizará (por ejemplo, dentro del seguimiento al PMA 2007-2010) y con qué periodicidad deberá realizarse dicha supervisión.

En todo caso, deberán fijarse indicadores para los objetivos ambientales específicos de la fase de la modificación que se analiza y que se estime que pueden tener un probable efecto ambiental significativo.

2.5.– Amplitud, nivel de detalle y grado de especificación del informe de sostenibilidad.

El informe de sostenibilidad al que se refiere la Ley 9/2006, de 28 de abril, sobre evaluación de los efectos de determinados planes y programas en el medio ambiente debe entenderse comprendido en el estudio de evaluación conjunta de impacto ambiental al que se refiere el Decreto 183/2003, de 22 de julio, por el que se regula el procedimiento de evaluación conjunta de impacto ambiental. Por tanto, en el «Plan Especial de Ordenación del ámbito de la Ría, en Bilbao» se deberá integrar un estudio de evaluación conjunta de impacto ambiental que debe ajustarse en cuanto a sus contenidos mínimos y estructura a lo dispuesto en el anexo al Decreto 183/2003, de 22 de julio, y a lo establecido en el anexo I de la citada Ley 9/2006, de 28 de abril.

De acuerdo con lo anterior, los apartados que se desarrollarán en el estudio de evaluación conjunta de impacto ambiental deberán responder al siguiente esquema metodológico:

1) Planaren helburu estrategikoak eta helburu horiek lortzeko beharrezkotzat jotzen diren bideak deskribatzea.

2) Beste plan eta programa batzuekiko elkarrekintzaren azterketa.

3) Planak eragindako eremuan, ingurumen alderdiaren analisia, diagnosia eta balioespena egitea.

4) Teknikoki arrazoizkoak diren ingurumeneko aukerak aztertzea. Egindako aukera arrazoitzea.

5) Planak eta haren baitako jarduerek eragin ditzaketen kalteak identifikatu eta balioestea.

6) Neurri babesle, zuzentzaile eta konpentsaziozkoen proposamena.

7) Planaren eragina gainbegiratzeko programa.

8) Sintesi-dokumentua.

9) Dokumentazio grafikoa.

Ingurumenaren gaineko eragina ebaluatzeko azterlaneko atal bakoitzean jasotako alderdien edukia eta norainokoa sustatu nahi den proiektuaren esparrua eta jarduera zehatzen araberakoa izango da.

Aztertzen ari garen dokumentuaren ezaugarriak eta egin ditugun kontsultetatik ateratako ondorioak kontuan izanda, Ingurumen Sailburuordetza honek uste du ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio bateratuan goian aipatutako atal guztiak garatu behar direla, ondoren adierazten den zabalera eta xehetasun-mailarekin:

2.5.1.– Aldaketaren helburu estrategikoak eta helburu horiek lortzeko beharrezkotzat jotzen diren bideak deskribatzea.

Ingurumenaren eragina ebaluatzeko azterlanaren atal honetan itsasadarraren ibilguan erabilera berriak arautzea komeni dela arrazoitu beharko da, egungo beharrak eta sortuko direnak ikusita, eta hirigintzaren alorrean herritarrek dituzten interesak eta beharrak neurtuta.

Planaren helburu estrategiko guztiak bildu beharko dira, eta aldaketarako proiektua lantzeko garaian aztertutako aukera desberdinetan helburu horiek kontuan nola hartu diren adieraziko da.

Alde horretatik, aurreko idatz-zatian adierazitako ingurumen arloko irizpideak helburu estrategikotzat joko dira; beraz, ongi egiaztatu beharko da helburu horiek nola ezarri diren proposatutako plana kokatu eta garatzeko zeuden aukera desberdinetan, eta bereziki egin den azken aukeran.

Eraginak zuzendu beharrean saihestearen aldeko printzipioaren arabera, ingurumen alorreko irizpide estrategikoak planean txertatzea izango da plana eta plan horren gaineko proposamenak ingurumen aldetik balioesteko giltzarria.

1) Descripción de los objetivos estratégicos del plan y de las alternativas consideradas para alcanzar dichos objetivos.

2) Análisis de las interacciones con otros planes y programas.

3) Análisis, diagnóstico y valoración ambiental del ámbito afectado por el plan.

4) Examen ambiental de las alternativas técnicamente razonables. Justificación de la solución adoptada.

5) Identificación y valoración de impactos del plan y de sus diferentes actuaciones.

6) Propuesta de medidas protectoras, correctoras y compensatorias.

7) Programa de supervisión de los efectos del plan.

8) Documento de síntesis.

9) Documentación gráfica.

El alcance y contenido de los aspectos que recoge cada apartado del estudio de evaluación de impacto ambiental deberá ser específico del ámbito y de las actuaciones concretas que se propongan.

Dadas las características del documento que se evalúa y a la vista de los resultados de las consultas realizadas, esta Viceconsejería de Medio Ambiente estima que el estudio de evaluación conjunta de impacto ambiental deberá desarrollar los apartados mencionados con la amplitud y nivel de detalle que se expresan a continuación:

